

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Zeanuriko Udala**

COVID-19a dala eta ondorioei aurre egiteko, jarduera Zeanurin kokatuta daben ostalaritza establezimendu, autonomo eta enpresa txikiei laguntza ekonomikoak emateko Ordenantza.

Zeanuriko udalak, 2016ko ekainaren 10an ospatutako Udalbatzan, hasierako onarpena eman eutsen hurrengokoari: «COVID-19a dala eta ondorioei aurre egiteko, jarduera Zeanurin kokatuta daben ostalaritza establezimendu, autonomo eta enpresa txikiei laguntza ekonomikoak emateko Ordenantza».

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dauzen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. Artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta, espedientea jendeaurreratu egiten da 30 egunetako epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuta, erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Zeanurin, 2020ko ekainaren 1ean.—Alkatea, Eider Ajuriagerra Arana

**COVID-19A DALA ETA ONDORIOEI AURRE EGITEKO, JARDUERA ZEANURIN
KOKATUTA DABEN OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU, AUTONOMO
ETA ENPRESA TXIKIEI LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO ORDENANTZA****1. Xedea, diruz laguntzen den aldia eta aurrekontu kreditua**

Araudi honen xedea, jarduera Zeanurin kokatuta daben ostalaritza establezimendu, autónomo eta empresa txikiei (6 langile gehienez), Coronavirusaren ondorioz euren jarduera eteteagatik sortutako egoeran laguntzea da.

Diruz lagundu daitekeen aldia hau da: alarma-egoera aldarrikatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zenetik, eskumeneko administrazioak jardueri berriz ere ekiteko baimena ematen dauen arte.

Dirulaguntza hau udal aurrekontuan aurrikusita dago.

2. Dirulaguntzen era eta zenbatekoa

Emango diren dirulaguntzak era bikoak izango dira: bonoak eta dirulaguntza zuzenak.

Jarduera eteteagatik dirulaguntza zuzendak

- Konpentsazio zuzena: 600,00 euro ostalaritzari zuzendua, eta 400,00 euro beste jardueri.
- Negozio-lokalaren alokairu gastuak.
- Negozio-lokala erosteagatik hipoteka gastuak.
- Jarduerak eragindako elektrizitate, ur eta gas gastuak.
- Kontratupean mantendutako pertsonalaren gastuak (200 euro gehienez guztira).

Eskatzaile bakoitzari 1.200,00 euro gehinezko dirulaguntza emango jake, eta eskatzaile bakoitzak eskari bakarra egin ahal izango dau.

Eskatzaileak jarduera bat baino gehiago garatzen baditu, bai bere kontura edo beste kontura, eskatzen den jarduerak dirusarrera gehien suposatzen badau bakarrik diruzlagunduko da.

Bonoak

Zeanuriko udalak, bonoak egingo ditu. 1 atalean adierazten den arrazoiak direla eta jarduera eten daben herriko komertzioetan gastatzeko.

Bonoak, 16urtetik gorako Zeanuriko herritarrak eskuratu ahal izango dituzte. Bono bakoitzak 10 euroko kostua izango, 15 eurotako gitxiengo gastu baterako. Pertsona bakoitzak gehienez 3 bono eskuratu ahal izango ditu, bakoitza komertzio desberdin baterako.

Bono hauek udalean erosiko dira. Komertzio guztientzat bono zenbaki kopuru bat egingo da eta bardiña izango da komertzio guztientzat.

3. Onuradunak bete beharko dituzten baldintzak

- Zeanuriko kokatuta dagoen jarduera baten titularra izatea.
- Jarduera, alarma egoeragatik etenda egon izatea.

4. Eskaera, agiriak eta aurkezteko epea

Eskatzaileak udaleko sarrera erregistrora bertaratuta edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako beste edozein bitartekoren bidez aurkeztuko dituzte eskaerak, 15 lanegunetako epean, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuta.

Eskariarekin batera hurrengoko dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Jarduera ekonomikoen zergan alta emanda egotea.
- 2020ko urtarrilean eta otsailean autonomoen kuota ordaindu izanaren ordainagiria.
- Zinpeko adierazpena sinatuta (I. eranskina).
- 2020ko otsailaren 29an udal Diruzaintzarekiko, Bizkaiko Foru Ogasunekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

**5. Instrukzioa, proposamena eta ebazpena**

Espedientearen instrukzioa gauzatzeko eskumena daukan organoa udaleko Idazkari-Kontuhartzailea da, Kontu Batzorde Bereziarekin batera; legezko epean eta eran aurkeztutako eskaerak baloratu eta aztertuko dituena.

Idazkari Kontuhartzaileak proposamena egingo dau, eta Alkatetza izango da hori ebazteko eskumena dauen organoa.

Prozeduraren ebazpena banaka jakinaraziko jakie interesatuei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 41. Artikuluan jasotakoa kontuan izanda.

Laguntza hauek beste udal administrazio ez diren batzuetatik jasotakoakaz bateragarriak izan daitezke, betiere jasotzen den dirulaguntzen zenbatekoa ez bada COVID-19aak sortutako kalteen zenbatekoa baino handiagoa. Kasu horretan, martxan jarriko da dirulaguntza itzultzeko-prozedura, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legean, azaroaren 17koan aurrikusten danaren arabera.

6. Justifikazioa

Dirulaguntzaren ebazpena jaso eta hilabeteko epean, interesdunek hurrengoko dokumentazioa aurkeztu beharko dabe:

1. Jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, hatzekoduna, zenbatekoa eta jaulkipen data adieraziz.
2. Gastua justifikatzeko faktura orijinala edo konpultsatua, Horien datak bat etorri beharko dabe diruz lagundu den aldiarekin.
3. Aurkeztutako faktura ordaindu izanaren agiria.
4. Dirulaguntza jaso dauen jarduera finantzatzeko izandako beste dirusarreraren xedea, zenbatekoa, jatorria eta konzeptua adieraziz.

Onuradunek ez badabez agiri horiek aurkezten, edo gastua jasotako dirulaguntza baino txikiagoa bada, diferentzia itzuli beharko dabe.

7. Administrazioaren eskubidea aurkeztutako agiriak berrikusi eta ikuskatzeko

Zeanuriko Udalak eskubidea dauka dirulaguntzaren onuradunek zinpeko adierazpenean emandako datuak benetakoak direla egiaztatzeko. Horretarako, udalak beste agiri batzuk eskatu ahal ditu prozeduraren edozein unetan. Onuradunek ez badabez aurkezten eskatutako agiriak, prozeduratik kanpo geratuko dira eta, bere kasuan, jasotako dirulaguntza itzuli.

8. Araudi Aplikagarria

Ordenantza honetan jasota ez dagoenerako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta haren izaeragatik aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau aplikatuko da.



I. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENA, JARDUERA ETA EGOITZA FISKALA ZEANURIN DUTEN OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEI ETA AUTONOMOEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK JASOTZEKO, KORONABIRUSAREN BILAKAERAK (COVID-19) ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEA XEDE

..... jaunak/andreak (NAN zenbakia:.....; helbidea: Kalea..... zenbakia, udalerrria), bere izenean edo enpresaren (IFK:; egoitza fiskala: Kalea,zenbakia,udalerrria) ordezkari gisa, honako hau adierazten du, bere erantzukizunpean, horretarako behar besteko ahalmena duelarik, udalerrian egunean notarioak emandako eskrituraren arabera* (protokolo-zenbaki

- Adierazpena sinatzen dauenak/Ordezkatzen dauen enpresak sektore edo jarduera honetan egiten du lan
- Adierazpena sinatzen dauenak/Ordezkatzen dauen enpresak ordainduta ditu Zerga Ogasunarekin, Zeanuriko Udalaren eta Gizarte Segurantzarekin dituen serga-betebehar.
- Adierazpena sinatzen dauenak/Ordezkatzen dauen enpresak bete egiten ditu Zeanuri-ko Udalak onetsi dituen laguntzak (jarduera Zeanurin duten ostalaritzako establezimenduei eta autonomoi zuzendutako laguntza ekonomikoak, koronabirusaren (COVID-19) bilakaerak eragindako kalteak arintzea xede dutenak, emateko premiazko deialdea arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak.
- Adierazpena sinatzen dauenak/Ordezkatzen dauen enpresak baimena ematen du laguntzak emateko prozedura honetatik eratorzen diren jakinarazpen guztiak helbide elektronikoko honetara bidaltzeko:
- Adierazpena sinatzen dauenak/Ordezkatzen dauen enpresak kontzeptu berarengatik beste laguntza batzuk JASO DITU / EZ DITU JASO, eta, hala badagokio, laguntza horiek bateragarriak dira deialdi honek
- Adierazpena sinatzen dauena/Ordezkatzen dauen enpresa ez dago sartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren debekuetan.

(lekua, data eta adierazpenaren egilearen sinadura)

* Eratutako persona juridikoentzat bakarrik.